

Antton Egiguren

LOVAINA UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

## Babelgo dorrea

**T**xikitatik entzun izan dugu Babelgo dorrearen ipuina. Nonbait lur gainean, hizkuntza bat besterik ez omen zen. Garaiko gizonak denok batera, beraz, proiektu kolosal bakar bati eman zioten hasiera. Dorre bat eraikitzeari, alegia. Zeruraino iritsiko zen dorre bat. Hizkuntza bat, dorre bat, eta helburu bat: Jainkoaren izenean mundua nagusitzea. Jainkoak gizonen proiektu hura ikusiz gero, amorruek hartu eta gizonak eskuartean zuten lan hura zapuztea erabaki zuen, hizkuntzak nahasiz. Geroztik, denak munduan zehar sakabanaturik, bakoitzak bere helburu txikiagoetara jo izango genuen.

Jainkoak ez du nahi nonbait, itzalik egin diezaiokeen norbait edo zerbait bere inguruan.

Ipuin honen benetako esanahia, aldiz, oso ez berdina da. Dorregintzan euren izerdi bero eta oinaze penagarrien artean harriluak egiten ari zirenak, noski, arimarik ez zuen jauntxo batentzat ariko ziren morroi lanean. Izanen baitzen orduan ere, bere burua jainkotzat zeukan botere-gose-asezin zoro deskontrolaturen bat.

Gizon jauntxo baten harrokeriazko proiektu honi Jainkoak ezetz borobil bat eman zion. Jainkoak ez zuen hizkuntza bakar bat nahi izan. Areago oraindik, Jainkoak ez zuen jauntxo bakar baten-



DANI BILANCO

tzat bizkarrezurra hausteraino menpeko eta morroi izango zirenen gizarte bat. Horregatik Jainkoak hizkuntzak nahastu eta dorregintzan jardun zutenak mundu zabalean zehar sakabanatu zituen. Ipuin honek azaltzen digun gertakizun hau Jainkoaren zigortzat hartu izan dugu. Ba, ez, alajainkoa! Hizkuntza nahaste hura eta mundu zabalean barna gizonok zabaltzea, onespen bat izan zen: oportunitate bat, erronka bat, proiektu ekintza berri bat. Ipuinaren mezua garbia da: izan zaitezte era askotakoak, erabil itzazue hizkuntza mota asko eta elkar uler zaitezte! Ikas ezazue ezberdintasunean elkarrekin bizitzen. Onar ezazue diferentzia eta bakoitzaren berezitasuna eta poztu zaitezte ahalegin horretan. Ez onartu inolako morrontza motarik, hau ez baita da Jainkoaren nahia.

Gauden egoeran globalizazio hitza asko entzuten dugu: mundu zabal honetan herritxo bakar bat bezala omen gera, beraz, berriro ere hizkuntza bakar bat erabiltzera behartzen gaituzte, inperio bat gurtzera, bandera bakar bati muxu ematera... eta pulpitutik entzuten asper-tu arte esaten digute: *una, santa, grande, por la gracia de...* eta Babelgo dorretik erantzuten dio horri Jainkoak: “Ez nire izenean behintzat!”. ■

« Ipuinaren mezua garbia da: izan zaitezte era askotakoak, erabil itzazue hizkuntza mota asko eta elkar uler zaitezte! »

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Onartzen du nagusiak berdintasuna, ezina zaio bestea parean, auke-berdinetan tratatzea. Donostia-ko Realak dugu orain mintzagai haur eta gazte mailako Gipuzkoako antolaketa dela-eta. Kontu zaharra da. Antiguoko kluba (Zorionak Ohorezko gazte txapelketa irabazteagatik) sortu zutenetik ezagutzen dut. Leandro zena eta Dodaka besteren artean. Lana latz eta fundamentuz egin izan du lehen unetik. Realak, maila orotan Gipuzkoako klubetako gazte onenak beretzat nahi izan ditu beti. Eta ustez onenekin berak ahuldutako klubak aurka jokatu izan du txapelketetan. Erraz irabazten ohitu da, errazegi. Lagun gutxi egin du. Zure

## Nekez

jokalariak eraman eta zure kontra jokatu, gainetik pasatuta gola zakua beteta bidaltzen zintuela etxera. Baina sosek ez dute guztia bermatzen, eta prestaketan bera adina kalitate eskaini duenik beti izan da. Antiguokoa izan da horietako bat, klubaren nortasuna eta helburu gorena gazteen prestaketaren zerbitzuan ezarri duena. Eta ez du onartzen Realarekiko menpekotasunik, berdintasuna aldarrikatzen du eta Realak adina badela frogatua du. Eta Realak bezala inguruko klub profesionalak. Guztiek dute gaitz bera. Zu mugatzean dute arrakasta bilatzen. Eta taldeak diren bezalakoak hartu behar dira. Antiguokoak frogatua du berezia dela, eta horrela onartu ezean jai dago. ■